



Gasteizen

Emakumeen etxea

SORTZEKO HASIERAKO PROPOSAMEN ADOSTUA

1. Fasea

| Gasteiz, 2017ko abendua |



EDUKIA

	Aurrekariak	3
	Emakume afrikarren ahotsak	4
	Prozesuaren garrantzia.....	5
	1. Filosofia.....	6
	2. Funtzionamendua	8
	Kudeaketa-eredua	8
2	Parte-hartzea	9
	Pertsonala.....	9
	3. Programak eta espazioak.....	11
	4. Finantzaketa	13
	5. Eraikina	14
	Talde Eragile Indartuaren berrespena	15
	Oharrak	16



AURREKARIAK

Dokumentu hau Gasteizen Emakumeen **(1. OHARRERA JOAN)** Etxea sortzeko prozesuaren lehenbiziko fasean parte-hartzaileko talde eragileak (TE) adostutako proposamena da. Ondoren aipatzen diren erakundeek osatzen dute TE: Arabako Emakumeen Asanbladak, Ama bakarreko Familien Axola Elkarteak, Eginaren Eginez Elkarteak, Elkarte Afroamerikarrak, Nigeriako Yoruba Elkarteak, Eoncult Elkarteak, Berri-Ñann Elkarteak eta Bachue Taldeak. Elkarte hauetako ordezkariak diren emakumeak Etxearen sortzeko partaidetzazko prozesuaren jarraipenak adostutako oinarri feminista duela bermatuko duten baldintzak ezartzeko lanean aritu dira.

3

Honako erakunde hauek Talde Eragile Indartua (TEI) osatu dute: lehen aipatutakoak; Bizirik; Mugarik Gabe; Mboolo Elkar; Perkuneskak; Gao Lacho Drom; Bilgune Feminista; Zinhezba; Kuéntame elkarte; Saharako Arabiar Errepublikako Demokratikoaren Lagunen Elkarte; Ekonomia feministako Eskola; Aizan Elkarte; Haurralde; Haaly Poular; Gerraren aurkako Emakumeak; 7menos20; Djekafo Maliko Emakumeen elkarte; Arabako Amen Elkarte; eta zazpi emakume indibidual moduan.

Halaber, dokumentu hau lantzeko, proposamena aberastua izan da; batetik, uztailaren 11n burutu zen 'Sareak josten/Tejiendo redes' jardunaldian parte hartu zuten elkarteetako emakumeen hausnarketekin, eta bestetik, talde eragile indartuaren bileraz geroztik (azaroaren 14a) jasotako ekarpenekin.

Batetik, [Berdintasunaren Elkargunean](#) **(2. OHARRERA JOAN)**, herritarrek prozesuari buruzko informazioa jaso dute, eta beren iritziak emateko eta proposamenak egiteko aukera izan dute. TEK aintzat hartu ditu iritzi eta proposamen horiek, [Gasteizen Emakumeen Etxea sortzeko prozesuko partaidetza-dokumentu markoan](#) ezarritakoaren arabera.

Prozesu honen partaidetza-esparruak ezartzen duena betez, dokumentu hori landuta, talde eragile indartuari (TEI) dagokio aurkeztutako proposamena berrestea.

Onartu ondoren, eta esparru-dokumentuak ezartzen duenaren arabera, udalak prozesuan eraikitakoa aitortzeko eta aintzat hartzeko konpromisoa hartzen du, betiere parte hartzen duten eragile guztien arteko elkarriketan eta adostasunik handienez oinarrituta badago (udala, elkarteetako ordezkariak eta talde feministetakoak eta

herritarrak). Halaber, TEIn hartutako erabakiak (bideragarriak eta egokiak direla irizten badio) bere gain hartzeko, eta bere gain hartuko ez dituen akordioei buruzko erantzun argudiatua emateko konpromisoa hartzen du. Hortaz, oinarri-dokumentua da, gerora egingo diren alderaketa tekniko eta politikoetatik abiatuta moldatu eta berraztertu beharrekoa (esate baterako, etxearen oinarriko funtzionamendurako aurrekontu bat ezarriko da), baina Gasteizko Emakumeen Etxea izango denaren filosofia eta ereduarekiko funtsezko abiapuntua.

Etxea bera martxan jartzeak berarekin ekarriko du dokumentu honetan aurkezten dena berriz hausnartzea, etengabeko ebaluazio- eta hobekuntza-prozesu baten baitan egongo da-eta. 'Emakumeen Etxea' Elkarte sortzeko, espazioak egokitzeko, kontratazioak egiteko, eta bestelakoetarako denbora beharko du.

Hortaz, denbora-tarte horretan (hasiera batean 2018), udalak, Berdintasun Zerbitzuaren bitartez, etxea martxan jartzeko prozesua kolektiboekin koordinatzea proposatzen da, proposamen hau lantzeko prozesuarekin egin den modu berean. Horretarako, martxan jartzeko plan bat ezarriko da aurrez, berariazko kronograma bat edukiko duen plana.

EMAKUME AFRIKARREN AHOTSAK

4

[‘Emakume afrikarren ahotsak/Las voces de las mujeres africanas’](#) Gasteizen Emakumeen Etxea sortzeko prozesuaren barruan txertatzen den prozesua da. Arabako Medicus Mundi garapenerako GKEk (MMA) eta Manuel Iradier Elkarte Afrikanistak (AAMI) aurkeztu zuten Gasteiz Hobetuz aurrekontu parte-hartzaileen programara.

Proiektu horren helburua da bereziki Afrikako emakume migratzaileen eskakizunak bistaratzea eta gehitzea Emakumeen Etxera. Horretarako, emakumeen parte-hartze erreal erraztuko duten neurriak jarriko dira martxan, giza eskubideen, kultura-artekotasunaren eta berdintasunaren ikuspuntutik.

Proiektu honen barruan, MMAk eta AAMIk akonpainamendu bat egin dute proiektuan parte hartzen duten emakume afrikarren autonomia-maila handiagoa lortzera bideratuta. Aipatu emakumeak elkarte hauetakoak dira: Mboolo Elkar (Senegal), Yoruba (Nigeria), Djekafo Maliko emakumeak, Haaly Poular (Ginea Konakry) eta Elkarte Afroamerikarra. MMAk eta AAMIk, hiriko gainerako emakumeekin batera, beren parte-hartze aktiboa bultzatu dute proiektuetan eta espazioetan, besteak beste: Emakumeen Etxea, Berdintasuneko Elkargunea, [Gasteizko Emakumeen Berdintasunerako eta Jabekuntzarako Eskola](#), eta [Laia Eskola](#) (Araba).


PROZESUAREN GARRANTZIA

Talde Eragileak baloratzen du Emakumeen Etxearen sorrerarako prozesua feminismoari giza eskubideak eta ekitatea defendatzeko apustu eta modu gisa balioa areagotu diola. Azken finean, justizia emakumeentzat eta, horrenbestez, gizateriarentzat; feminismoa, horren parte izan garen emakumeekin espazioak eta denborak partekatzen dituztenenganantz erakarriz eta proiektatuz. Atal honetan, prozesu parte-hartzailea talde eragilean lan egin dugun emakume eta elkarte guztiontzat zer izan den partekatu nahi dugu.

Topaketak eta elkartrukeak gidatu dute prozesua, etxearen filosofiaren parte diren aniztasuna (funtzionala, kulturala, eta abar) eta inklusioa kontuan hartuta. Horrela, adibidez, elkarrekin ezagutza eraiki dugu, elkarte bakoitzak bere egunerokoan darabiltzan hizkerari eta kontzeptuei buruzko eztabaidaren bitartez.

Horrez gain, emakumeontzako erronka komunak identifikatu ditugu Gasteizen eta mundu globalizatuan, baita horiek lortzeko estrategia ere, gu bezalako emakumeek gure hiriaren agenda politikoan eta ekonomikoan parte hartuz eta lidergoa hartuz.

Gasteizen Emakumeen Etxe bat edukitzeko egin den bidea eta lortu dena askoz ere emakume gehiagorekin partekatu dira, eta emakume horiek berena egin dute. Nolanahi ere, badakigu, jakin ere, “gu garela, baina ez gaudela denak”, ez baitezakegu ahanz espetxean, gerratik ihesean, aterpe bila, pobrezian, etxegabe... daudenak; horiek etxean presente egon beharko dute, bertan egingo den lanari esker.

 *Talde Eragileak baloratzen du Emakumeen Etxearen sorrerarako prozesua feminismoari giza eskubideak eta ekitatea defendatzeko apustu eta modu gisa balioa areagotu diola.*

5

1. FILOSOFIA

Etxea proiektu feminista bat da, emakumeek emakumeentzat gidatua. Etxea, emakumeok elkar aitortzeko topalekua da, eta hortik abiatuta, leku propio komunak identifikatu eta sortu ahal izateko espazioa.

1. Etxea **inklusiboa, irekia eta anitza** izango da.

🏠 Etxean **sektorearteko ikuspegia** landuko dugu; horrek esan nahi du kontuan hartzea desberdintasunezko egiturazko iturri desberdinek nola mantentzen dituzten pertsonengan modu esponenzialean eragiten dituzten elkarrekiko harremanak. Desberdintasunezko egiturazko iturri horiek gizarte-klasean, sexu-orientazioan, genero-identitatean, aniztasun funtzional, kultural, linguistiko eta erlijiosoan, egoera administratiboan, nazionalitatean, adinean, estatusen eta giza

immunoeskasiaren birusean (GIB), besteak beste, dute oinarri. Erabakiak hartzean eta Etxearen eta bertan jasoko diren programen eta zerbitzuen kudeaketari heltzean, sektorearteko ikuspegia ardatz izango da.

🏠 Etxearen eskumenei dagokienez, emakumeen eskakizun eta errealitate guztiak integratzen saiatuko da, une bakoitzean ezarriko diren helburuen arabera. Funtzionamenduan malgutasuna izango da abiapuntua, premia eta interes horiek egokitu ahal izateko.

🏠 Etxeak arreta jarriko du, halaber, emakumeen artean sortzen diren botere-erlazioetan ere. **Horizontala eta parte-hartzailea** izango da estamentu eta prozesu guztietan, hartuko diren erabakiak eta izango diren harremanak bidezkoak eta orekatuak izan daitezten.

🏠 Etxea **kultura-artekotasun** kritiko eta feministatik eraikiko da.

2. Etxeak **leku segurua eta konfiantzazkoa** izan behar du emakume guztientzat.
3. Etxea edozein alderdi edo mugimendu politiko, talde, entitate eta espaziorikiko independentea izango da, eta horretarako, beharrezkoak diren egiturak sortuko ditugu.
4. Erreferentea izango da Gasteizen feminismoaren eta berdintasunaren alde lan egiten duten emakume eta talde guztientzat.
5. **Feminista** izango da, eta feminismoa zabalduko dugu hiri osoan barrena, eta udalerriko berdintasun-politika publikoetan eragingo dugu.
6. Etxeko espazio guztiek **diseinu unibertsala** edukiko dute, gizakiaren aniztasun funtzionala abiapuntu hartuta, halako moldez, non sarbidea maximoa eta oztoporik gabekoa izango baita, modu berezi batean egokitu edo birdiseinatu beharrik gabe.
7. Espazioak **malguak eta moldagarriak** izango dira, erabakiko ditugun programak eta ekintzak garatu ahal izateko.
8. **Topalekua** izango da, sormena, hausnarketa eta, batez ere, egiteko beste modu batzuk sustatuko dituena. Halaber, eroso izango da, **dibertsiorako** eta **pozerako** lekua.
9. **Ikasteko** leku bat izango da; horretan, emakumeek beste emakumeek irakatsitakoa ikasiko dugu, eta denok izango dugu gainerakoei zer irakatsi.
10. **Errespetuak** eta **ekitateak zuzenduko dute Etxea.**

Etxea martxan jartzen den bitartean eta funtzionatzen hasten denean, etxearen filosofiaren berri ematen duten oinarrizko termino guztiak (feminista, feminismoa, sektorearteko ikuspegia, heteropatriarkatua, genero-identitatea, kultura-artekotasuna, eta abar) etxea osatuko dugun emakumeek birsortu eta birdefinituko ditugu.

2. FUNTZIONAMENDUA

Kudeaketa-eredua

Etxeak **kudeaketa-eredu partekatua izatea proposatzen dugu, Udalaren (Berdintasun Zerbitzuaren bitartez)** eta etxearen helburuak lortzen parte hartu nahi duten eta beren izenean jardungo diren **emakume guztien artean**, horretarako berariaz sortuko den elkartearen bidez.

Horrenbestez, lehenik **2018an Elkarte** bat sortzea proposatzen dugu (aurrerantzean 'Etxea Elkarte' deituko duguna), **Udalaren babesarekin (Berdintasun Atalaren bitartez). Etxea Elkarteak izaera juridikoa edukiko du, eta Etxearen parte direnak ordezkatzuko ditu.** Etxea Elkarte hori hala nahi duten emakumeek (pertsonek) osatuko dute.

Martxan jartzen den bitartean, Etxea Elkartearen estatutuak idatziko ditugu. Aipatu estatutuek Etxearen helburuak, bazkide izateko baldintzak eta Etxearen filosofiaren printzipioekin bat etorriko den erabakiak hartzeko modua jasoko dituzte.

Etxearen kudeaketa jardun partekatu gisa ulertzen dugu, horizontala eta Elkartearen eta Udalaren artean elkarrekin eraikitzekoa. Etxearen baterako kudeaketa nahitaez itundua, arautua eta eguneratua egongo da Etxea martxan jartzen den bitartean, alde bakoitza bere eginkizunak izan ditzan, erabakiak hartzeko prozesuak Etxearen filosofiarekin bat etor daitezten.

Halaber, gerora, **koordinaziorako eta baterako kudeaketarako protokoloa** landu beharko dugu; horretan, eginkizun horiek zein organok beteko dituzten eta erabakiak nola hartuko diren zehaztuko dira.

Halaber, **Etxea Elkartearekin hitzarmena** bat sinatzea proposatzen dugu, eta horren barruan pertsonalaren eta Etxeak antolatutako ekintzen kostua jasoko litzateke, Udalarekin itunduta. Hitzarmen horren bitartez emango den diru-laguntza Etxea Elkarteak justifikatuko du Udalaren aurrean horretarako dagokion epean.



Etxeak kudeaketa-eredu partekatua izatea proposatzen dugu, Udalaren eta etxearen helburuak lortzen parte hartu nahi duten eta beren izenean jardungo diren emakume guztien artean.

PARTE-HARTZEA

Emakumeek eta horiek soilik hartuko dute parte Etxearen **kudeaketa-organotan, zerbitzuetan eta ekintzetan** emakume horien jatorria, kultura, erlijioa, adina, egoera administratiboa, gizarte-klasea, gaitasun funtzionalak eta bestelakoak edozein direla ere.

Zentzu horretan, ekintza mistorik eta/edo gizonei bideratutakoak antolatuko balira, Etxetik kanpoko beste lekuren batean gauzatuko lirateke.

PERTSONALA

Etxeak behar bezala gobernatzeko eta funtzionatzeko, eta sortuko duen lan-bolumena kontuan hartuta, gure iritziz funtsezkoa da profil teknikoa izango duten bi pertsona, gutxienez, kontratatzea (**koordinatzaileak**). Horiek, lan teknikoak, barne-kudeaketa, udal-teknikariarekiko koordinazioa, eta Etxeari buruzko komunikazioa landuko dituzte (**3. OHARRERA JOAN**).

Kontuan hartuta Etxea zabalik egongo den denbora pertsona baten lanaldiaz harago doala, berriro diogu gure iritziz Etxeak bi koordinatzaile eduki behar dituela.

- 8 Bi emakume teknikari horien (koordinatzaileak) kontratazioa Etxearen filosofiarekiko koherentzian, eta Etxea Elkarrearen autonomia eta lidergoa gordetzen laguntze aldera izango da. Pertsona horien ezaugarri profesionalek Arabako feminismoari buruzko eta emakumeen giza eskubideen ezagutza teoriko eta praktikoa bermatu behar dituzte.

Halaber, emakumeak edozein unetan Etxea erabil ahal izatea eta sarbidea izatea funtsezkoa ikusten dugu. Horretarako, Etxea Elkarreak eraikinaren giltzak izango ditu eta bere erabilera gestionatuko du. Funtsezkotzat jotzen dugu **Etxearen irekitze-ordutegiaren arabera (aste tartean eta asteburuetan) kontrol-ofizialak** udalak kontratatzea; horiek, beren gain hartuko dituzte eraikinaren mantentze-lana eta funtzionamendua, hainbat administrazio-izapide, Etxera lehen aldiz hurbiltzen denari ekimen hori zertan den azaltzea, eta halakoak.

Euskararen erabilera Etxean bermatua egongo da.

Aipatu dugun moduan, Berdintasun Zerbitzua Etxean ez egotea proposatzen dugu, autonomia handiagoa gordetze aldera. Nolanahi ere, gorago zehaztu dugun moduan, Etxearen eta Udalaren arteko harremana Etxearen koordinatzaileen eta proiektuaren ardura hartuko duen Berdintasun Zerbitzuko udal-teknikari baten artean bermatuko dugu.

Bestalde, Etxeko programak eta ekintzak aurrera eramateko, iraunkorki ez bada ere, ondorengo lanbide-profil horiek eduki ahal izatea proposatzen dugu:

-Gazteekin lan egingo duten **hezitzaileak**. Profil hori neska-mutikoekin eta gazteekin lan egiteko espazioetarako identifikatzen da.

-**Haur-zaintzaileak** une puntaletarako, haur horien arduradunak Etxeak antolatutako ekintzetan parte hartzen ari direnerako.

-Ikuspegi feminista izango duten emakumezko **psikologoak**. Profil hori batez ere gazteekin lan egiteko identifikatu da, nahiz eta egoera ahulean dauden kolektiboek arreta egiteko ere beharrezkotzat jotzen den.

-**Aholkulari juridikoak**. Emakumeei hainbat prozesutan laguntza emango diete; bai lan-arloan, bai gizarte-arloan, penalean, eskubideen arloko prestakuntzan, titulu akademikoak homologatzen, eta abar.

3. PROGRAMAK ETA ESPAZIOAK

Etxea martxan jartzen den bitartean identifikatu eta proposatu ditugun programei eta espazioei dagokienez, honako hauek ikusten ditugu lantzeko modukoak (**4. OHARRERA JOAN**):

1. Gasteizko emakumeen berdintasunerako eta ahalduntzerako eskola¹.
2. LGTBI pertsonen arreta.
3. Arreta-zerbitzu edo aholkularitza psikologiko bat, ikuspegi feminista batetik jardungo dena, eta adin guztietako emakumeei arreta eta lagun egingo diena. 9
4. Aholkularitza-zerbitzu juridiko propioa, hainbat gaitan lagunduko duena, emakume bakoitzaren premien arabera.
5. Autoenplegua sustatu eta horren inguruko prestakuntza, eta aldi berean, emakumeei lana bilatzen lagunduko dien zerbitzua.
6. Denboraren banku bat, horren bitartez emakumeek ekonomia-eredu jasangarriagoa sor dezaten, eta egunerokoa izan ditzaketen premiei erantzuna emateko.
7. Liburutegi bat, ezagutza izateko tokia.
8. 'Txikigune' bat, zaintzaile batek eramango duena. Horrek, txikien arduradunak okupaturik dauden bitartean, haurrak zaintzeaz gain, dinamika/prozesuak sortuko ditu haurren premiak, ikuspuntuak, sentitzeko moduak, eta abar jasotze aldera.
9. Emakume bitartekarien zerrenda bat, kultura aniztasuna kudeatzen laguntze aldera.
10. Elkarte guztiek maila guztietan (tokian-tokian, autonomia-mailan, estatu-mailan...) beren buruaren berri emateko aukera emango dien guneko fisiko bat, eta aldi berean, beste elkarteekin harremanetan jartzeko eta haien baliabideak (agirien inprimagailuak, eta abar) Etxean parte hartzen duten gainerako elkarten esku jartzeko gunea.
11. Etxearen filosofiaren komunikazio bat, taula baten bidez edo bestelako sistema bat erabilita.

Espazioei eta horien filosofiari dagokienez, hauexek identifikatu ditugu:

- 🏠 Etxea segurua izango da. Horrela, segurtasuna zainduko da etengabe; horretarako, egin daitezkeen mota desberdinetako erasoei erantzuteko sistema bat diseinatuko da.
- 🏠 Erabilera anitzeko espazioak, moldakorrak, hitzaldiak, topaketak, erakusketak, lantegiak... antolatzeke, premien arabera ireki edo ixten ahal diren espazioak.
- 🏠 Etxea bere osoan espazio bakar bat bezala hartzen da, edozer edozein lekutan gerta daitekeena. Etxe osoa, bere osotasunean, sortzeko, ahalduntzeko, bilerak egiteko, informazioa elkarri trukatzeko... lekua izan daiteke.
- 🏠 Eremu oso handia, 200-300 lagun biltzeko aukera emango duena, bestelako udal-azpiegituraren edo azpiegitura pribaturen mende egon beharrik ez izateko.
- 🏠 Haurrentzako espazio bat, Etxean parte hartuko duten emakume askok beren haurrak zainduko dituen zerbitzu baten premia izango baitute ekintzetan parte hartzen ari diren bitartean.
- 🏠 Kanpoalde bat (ez du zertan erabilera eksklusibokoa izan); esate baterako, lorategi bat, ekintzak bertan lantzeko eta beste modu batera egon ahal izateko.
- 🏠 Hainbat eremu, emakumeek horietan, hala behar izanez gero, haien jarduerak diskrezio eta konfiantza osoz burutzeko, non seguru egongo eta sentituko baitira.
- 🏠 Intimitatea emango duten espazioak, emakumeek behar izanez gero, profesionalen laguntza jasotzeko.
- 🏠 Beste eremu batzuk ere proposatzen dira, besteak beste: sukalde bat, hamman bat, egongela bat eta atondo bat. Sukaldea kultura-artekotasun gastronomikoa gauzatzeko eremua izan daiteke.

10

4. FINANTZAKETA

Aurkezten dugun proposamenak hainbat ildo jasotzen ditu Etxea finantzatzeko:

1. Finantzaketa zentrala, Etxearen oinarritzko funtzionamendua bermatuko duena, egonkortasuna emango duen berariazko udal-partida batetik etorriko litzateke. Etxearen urteko behin-behineko aurrekontu-proposamena Etxea 2018an martxan jartzeko prozesuan kalkulatu da. Urteko partida koordinazio-organoan aztertuko da, eta zinegotzigo arduradunari egokituko zaio hori proposatzea aurrekontu-ekitaldian jaso izan dadin. Kasu horretan, onartuko den aurrekontuak Etxearen oinarritzko egitekoaren jarraipena bermatu beharko du. Horretarako, honako hauek jaso beharko ditu: Etxearen mantentze-kostuak, Etxea Elkarteari esleitutako Etxearen funtzionamendurako funtsezkoa den pertsonalaren gastua, adostutako gutxieneko funtsezko ekintzen kostuak, ekipoaren estaldura (...).

2. Orobat, Etxea Elkarateak Etxearen helburuetarako eta ekintzetarako baliabideak lortzeko beste modu batzuk balora eta identifika ditzake, kontuan hartuta Etxearen mantentze-lana eta oinarrizko funtzionamendua Udalak hitzarmen bitartez zehaztuko duen urteko partidaren baitan egongo dela:

🔗 Pertsonek, elkarteek, irabazi asmorik gabeko erakundeek eta bestelakoek egin ditzaketan ekarpenak, dohaintzak eta/edo legatuak onar daitezke.

🔗 Bazkideek egin ditzaketan ekarpen indibidualak.

🔗 Baliabide propioak sortzeko moduak identifikatu eta arautu.

5. ERAIKINA

Etxea sortzeko prozesu honetan eraikinarekiko hainbat premia identifikatu ditugu, gure iritziz, funtsezkoak. Udalak eraikinen inguruan orain arte egin dituen proposamenek nekez jaso ahal izango dituzte agiri honetan bertan aipatu ditugun espazioak, programak eta ekintzak. Hortaz, gure iritziz atal honek zabalik eta bukatu gabe jarraitzen du. Lanean jarraituko dugu eraikin apropos bat aurkitzeko.

Bestalde, lehen aipatutakoa eta aukera modura Elvira Zulueta Jauregia ez zela onartu kontuan hartuta, Udalak hiru eraikin proposatu ditu aztertzeko. Behin betiko posizioa ez bada ere, Renferen eraikina Etxea bertan kokatzeko lehen aukera izan daitekeela baloratu dugu; bigarren aukera Etxanobe izan daiteke; eta hirugarrena, berriz, Etxezarra. Beste alde batetik, proposamen hauei alternatibak bilatzen jarraitu da, hau dela eta hurrengo eraikinak proposatzen ditugu baloratuak izateko Emakumeen Etxearen egoitza izateko:

- Gobeo Guevara jauregia
- Maturana-Verastegui jauregia
- Goya gasolindegi zaharra
- Álava-Velasco Jauregia
- Justizia jauregi zaharra
- Alfaro etxea



Lagapena

Udalak eraikina Etxea Elkarteari aldi baterako lagatzea proposatzen dugu, aipatu eraikinean proiektua gauzatzeko.

Udalak lagapen hori bertan behera utzi nahi izango balu, horren berri eman beharko lioke Etxea Elkarteari gutxienez urtebete lehenago. Erabaki hori egoera eta egitate errealetan oinarritu beharko luke, eta lan- eta negozioazio-epe bat ireki beharko luke lagapena mantentzea ahalbidetuko luketen formula berriak aurkitzeko.

Eraikinaren erantzukizuna (mantentze-lana, garbiketa, premia teknikoak, eta abar) Udalak hartuko du bere gain.

Halaber, Etxearen premiak eta erabilerak aldatuko balira, Etxea Elkarteari eraikinaz aldatzeko eskaera egin ahal izango du.

TALDE ERAGILE INDARTUAREN BERRESPENA

Berrespena Talde Eragile Indartua osatzen duten elkarte eta emakumeekin egin da bi saioetan. Lehenbiziko saioak Talde Eragileak adostutako proposamena TEIri aurkeztea eta bide batez hauen ekarpenak jasotzea helburua zuen. Lehenbiziko saio horren helburuak bete ziren, hain zuzen ere, parte hartzaileen ekarpen ezberdinak bildu ziren baita orokorrean proposamena egokia zela baieztatu zen.

12

Behin TEIren ekarpenak proposamenean jaso eta gero TEIri bigarren saio (**6. OHARRERA JOAN**) baterako deialdia luzatu zitzaion. Saio honen helburua Talde Eragileak adostutako proposamenaren azkeneko bertsioa berrestea zen. Bertaratutako emakumeek bere onarpena adierazi zuten bost baloretako eskala baten bitartez eta honako hau izan zen saioaren emaitza:

Kalkulu haztatuaren bitartez, dokumentu osoak 5etik **3 edo 4ko onarpena (7. OHARRERA JOAN)** izan du, ondorioz proposamena **Talde Eragile Indartuak berretsi du.**



OHARRAK

- (1) Emakumeak irakurtzen den guztietan, emakumeak, lesbianak eta trans izango dira. Emakume gisa identifikatzen diren lesbianak lehen lekuan aipatutako kategorian daude ("emakumeak"). Nolanahi ere, badira emakume gisa identifikatzen ez diren lesbianak; ikusmolde hori Monique Wittig-en lanetik dator. Teoriko feminista eta idazle frantses horrek dioenaren arabera, lesbianak "ez dira emakumeak". "Lesbiana" kontzeptua sexu-kategorietatik (emakumea eta gizona) harago dago, izendatutako subjektua (lesbiana) ez baita emakumea, ez ekonomikoki, ez politikoki, ezta ideologikoki ere". 'Sexu-genero' sisteman emakumea izatea emakumeak gizonekiko duen osagarritasun afektiboaren, sexualaren, politikoaren, ekonomikoaren... baitan dago, eta arauzko edo derrigorrezko heterosexualitatearen baitan. Lesbianak heterosexualitateatik 'ihesian' daude. Wittigentzat heterosexualitatea gizonek emakumeak mendean hartzeko egitura bat ugaltzea bermatzen duen erregimen politikoa da. Heterosexualitateari ihes egiten, "lesbianak emakumeengandik haratago daude". Emakumeen Etxearen testuinguruan, erabilgarria da emakumez, lesbianez eta transez hitz egitea genero desberdintasunak zehazteko, ez bereizketa egiteko, baizik eta adierazteko 'emakumea/k' kategoria ez dela homoginoa. Hortaz, litekeena da prozesu berdinek eragin berdina ez izatea euritako berberaren pean dauden guztiengan. Bestalde, ikuspegi interseksionalak (sexu- eta genero-aniztasuna barru) Etxearen filosofiaren oinarrian dago, eta 'emakumea/k' subjektu politikoaren hedapena ere Gasteizko Udalaren berdintasun-politiken asmoa da.
- (2) 'Elkarguneak' herritarrek parte hartzeko espazioak dira, Gasteizko Udalak sustatuak udalaren eskumenekoak diren gaiei buruzko proposamenak hausnartzeko eta lantzeko. Berdintasuneko Elkargunea edozein entitatek, instituzioek eta taldek (berdintasuna beren helburuetan kontuan eduki nahiz eduki ez), gobernu-taldeak eta gainerako udal-alderdi politikoek, eta parte hartu nahi duen edozein pertsonak (bere kabuz) osatzen dute.
- (3) Hauexek liriateke koordinatzaileen eginkizunak:
 - Emakumeen Etxea Elkartearen eta Udalaren arteko koordinazioa, Berdintasun Zerbitzuaren bitartez. Eginkizun hori funtsezkoa eta trinkoa da kudeaketa partekatuko eredu baten barruan.
 - Gasteizko emakumeen Berdintasunerako eta Jabetzerako Eskolaren kudeaketan laguntzea (prestakuntza-ekintzen paketearen diseinua, Emakumeen Etxea Elkartearekin lankidetzan; eguneroko logistika -harremanak hezitzaileekin, bidaiak erosi, ostatu-hartzea eta abar-; ekintzen inguruko komunikazioa eta publizitatea; ikus-entzunezko materialak eta bestelakoak landu, herritarrek eskolan lantzen ditugun edukien inguruan kontzientzia hartzeko; intereseko ekintza berriak identifikatu; eta abar).
 - Etxeko espazioak kudeatzea, horiek behar dituztenek eta Elkartearen kide direnek erabilera koordinatua egin dezaten.
 - Berdintasunarekiko konpromisoagatik eta emakumeen giza eskubideen alde egindako lanarengatik estrategikoak diren hiriko elkarteak identifikatzea eta horiekin itunak ezartzea.
 - Ahalduz kolektiborako intereseko prozesuak identifikatzea eta martxan jartzea.
 - Etxean ematen diren prozesuak eta Berdintasun Zerbitzuak bideratutako beste prozesu batzuk koordinatzea; besteak beste, elkartei bideratutako diru-laguntzak edo instituzioen arteko Beldur Barik programa (indarkeria matxista gazteen artean prebenitzera bideratua).
 - Etxea proiektu gisa dinamizatzea: zertan den ezagutzera eman, helburuak, nortzuek osatzen duten, zabalpenerako tresnak landu...
- (4) Etxearen hitzarmenak finantzatuta egingo diren ekintzek ez dute beraiekin ekarriko zerbitzuak ematea. Hitzarmenaren kargura, edozein modutara, zerbitzu puntualak eman ahal izango dira; haurtzaindegia kasurako, zenbait ekintza garatzeko beharrezkoa denean.
- (5) Gaur egun, zazpigarren edizioa du. Eskolaren helburua da emakumeen ahalduz kolektiboa sustatzea hainbat prestakuntza-proposamenen bitartez. Lehen instantzian, prestakuntza-ekintza horien xedea da emakumeak beren mendekotasun-egoeraz kontziente izatea, eta, ondoren, emakumeen giza eskubideekiko jarrera berdinzaleagoak eta errespetuzkoak hartzea eta exijitzea. Zentzu horretan, Eskola tresna bat da eta honako hauek ditu oinarri: berdintasun-printzipioaren garapena, emakumeen parte-hartze eta eragin handiagoa, pertsonen arteko ezagutza eta lankidetzak, sareak sortzea eta parte hartzen duten pertsonak egitura asoziatibora eta udaleko organo parte-hartzaileetara hurbiltzea.
 - Lan-ildo estrategikoak: Genero-ikuspegia txertatzea; feminismoa; identitatea, subjektibotasun femeninoa eta balioak aldatzea; sexu- eta genero-identitateak; indarkeria matxistari aurrea hartzea; kultura-artekotasuna eta elkartasuna; gizarte-antolaketa erantzukidea; kultura birdefinitzea; eta komunikazioa eta trebetasunak.
 - Programazioa (hitzaldiak, ikastaroak eta lantegiak, zineforumak eta irakurketa-klub feministak) ikuspegi feministatik eta sektore arteko ikuspegitik diseinatuta dago, eta euskararen erabilera sustatzea jasotzen du.
- (6) Saioa 2017ko abenduaren 19an ospatu zen El Campillo Gizarte Etxean. 15 elkarte eta 30 emakume baino gehiagok bertaratu ziren.
- (7) Kalkulua horrela egin da: 5 eta 1 puntu banatu dira onarpen maila kategorian ezberdinei (oso altua=5, altua=4, onargarria=3, baxua=2, oso baxua=1). Honen arabera 5, 4 eta 3 baloreak onartuak kontsideratzen dira, 2 eta 1 ez onartu bezala hartzen da.